

STM

donostia**kultura**.com




San Telmo Museoa

Zuloaga plaza 1
20003 Donostia – San Sebastián
Telefonoa: 943 48 15 80
santelmo@donostia.org
www.santelmomuseoa.com

ALAKIKETAN

Irakaslearen gida

San Telmo Museoa



Erakunde laguntzaileak:



Patrono pribatuak:



Sarrera

HELBURUA

Aurkezten dizugun material didaktiko honen xedea musika tradizionala aurkeztea da, eta hari zentzua ematen zion gizarte tradizionala, horretarako museoko erakustaretoak eta hezkuntza-tailerra darabiltzala.

HARTZAILEAK

Haur Hezkuntzako bigarren zikloko eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloko ikasleak.


METODOLOGIA

Aktibitateak “Tradizioak bizirik dirau” erakustareto iraunkorren bisitaldi gidatua eta hezkuntza tailerreko ariketa hartzen ditu bere baitan:

- Erakustareto iraunkorren: Euskal Herriko musika-tresna tradizionalen, festen eta jantzien ezaguera.
- Hezkuntza tailerrean: euskal soinu-tresna tradizionalen azterketa eta esperimenezioa.

IRAUPENA

Ordubete, ordu eta erdi gehienez ere (30-45 minutu txanda bakoitzeko). Honek ez du kontuan hartzen ibilbide osagarri alternatiboa (*Baserritar giroa* eta *Lanetik kirolera* izeneko ariketak), *Alakiketan bera*, *A ze paraa!* eta *Jantzi nazazu!* ariketak baizik. Ibilbide osagarria eginez gero, beste hainbeste beharko dute.



JARDUERA ONDO EGITEKO BALDINTZAK

Musikaren atala egoki jorratuko bada, talde txikiak egin behar dira, hamabost lagunekoak gehienez ere.

Horregatik, ikastaldek 20-25 lagun artekoak izan ohi direla jakinik, jarduera bi ataletan banatu da:

1. **Alakiketan bera:** musika tresnen bidezko ariketa hezkuntza-tailerrean.
2. **A ze pare! eta Jantzi nazazu!:** lehena, musika tresnak pareka jarri eta bigarrena, dagokien dantzari edo jolearen janzkiarekin lotzeko ariketa arina.

Jarduera hau egiteko bi lagun behar dira:

- Museoko gidaria erakustaretoetan
- Musikaria tailerrean

Hortaz, txandaka ibilita, ikasle guztiek egingo dituzte ariketa biak, zain egon beharrik gabe.

OHARRA: sarritan garraibidea optimizatzeko ikastalde bat ez baina bi batera etortzen zaizkigula kontuan hartuta, beste talde bat balitz, denbora osoan zain egon beharrean, gai beraren inguruan antzeko ariketak egiteko proposamena ere prestatu dugu, hau ere bi azpitaldetan bana daitekeena, txandaka jorra ditzaten:

3. Baserritar giroa: ibilaldi laburra “Tradizioak bizirik dirau” atalean, eta behaketa ariketak argazkiei erreparatuta.

4. Lanetik kirolera: herri kirolen inguruko ariketa, jatorrizko lanbideak eta gaur egungo kirolak batzen dituena.


Jarduera hauek, beste bien osagarriak direnez, irakasleak berak gauzatu beharko ditu.

Baserritar giroa ariketan, eskaintzen zaien fitxa didaktikoa bete behar dute, informazioa argazkietan bilatuta.

Lanetik kirolera ariketan, fitzak eman eta hirukoteak osatu behar dituzte (objektuaren izena, deskribapena eta irudia), informazioa bitrinetan bilatuta.

Oro har, ikasleek talde txikietan (binaka-hirunaka) lan egingo dute.

Museoak talde bakoitzari material didaktikoa helaraziko dio. Musika-tresnak hezkuntza-tailerrean landuko dira; gainerako ariketak erakustaretoetan jorratuko dira; hau da, Museoaren goiko klaustroan, elizako korua izandako tokian.



1. Alakiketan

Ariketaren helburua:

- Euskal musika-tresna tradizionalak hurbildu (txalaparta, adarra, txirula, gitarra, e.a.)
- Euskal gizarte tradizionalan musikak eta orohar, soinuek betetzen zituzten eginkizun komunikatiboak, ludikoak eta erritualak azaldu
- Umeen partaidetza aktiboa sustatu
- Esperimentazioan oinarritutako musika-tresnen erabileraren ikasketa burutu

“Alakiketan” umeak euskal soinu tradizioaletara hurbiltzeko tailer ludiko-didaktiko bat da. Halako proiektuetan eskarmentu handia duen musikari profesional batek, txalaparta dela, adarra dela, txirula, gitarra eta abar direla, euskal gizarte tradizionalan musikak eta, oro har, soinuek betetzen zituzten eginkizun komunikatiboak, ludikoak, erritualak... azaltzen ditu, betiere umeen partaidetza aktiboan eta esperimentazioan oinarriturik.



Zer da txalaparta?

Zenbatek jotzen dute?

Biek berdin jotzen al dute?

Zein da “Ttakuna” eta zein “Errena”?

Zertarako erabiltzen zen?

Beti berdin jotzen al zuten? Zergatik?

Antzinako txalapartak eta gaur egungoak berdinak al dira?

Zertan desberdintzen dira?

Ahozko ariketa, gaiari ekiteko galdera eta erantzun bidez ikasleekin batera egiten dena.

Tailer didaktikoan burutzen da. Euskal musika-tresna tradizionalen jatorriaren eta erabileraren inguruan hausnartu eta txalapartaren inguruan sakonago aritzeko.



2. A ze parea!

Ariketaren helburua:

- Euskal musika-tresna tradizionalen materialak eta osagaiak identifikatu (panderoa, alboka, danbolina, txistua, dultzaina, danborra, tronpa, txirula, ttunttuna, eskusoinua eta txalaparta)
- Euskal musika-tresna tradizionalen jotzeko erak azaldu (teknika, bikoteak, sexuaren eta espazioen arabera, e.a.)

Ahozko ariketa, gaiari ekiteko galdera eta erantzun bidez ikasleekin batera egiten dena.

“Tradizioak bizirik dirau” aretoetan burutzen da. Irakasleak ikasleekin jokatzeko bi era dauzka:

1. **Irudia erakutsita, musika-tresnaren izena asma dezaten**
2. **Soinu-tresna bakoitzari dagozkion bi pistak irakurrita, musika-tresnaren izena asma dezaten**

Ikusi adibide hauek eta datozen orrietako argazkiak erabiliz has zaitez jolasten!

PANDEROA



- Larruzkoa da.
- Normalean emakumeek jotzen zuten.
- Gehienetan beste soinu-tresna bat laguntzen du.

ALBOKA



- Bi adar ditu.
- Pandero-joleak lagundu egin ohi du.

DANBOLINA



- Txistuarekin batera jotzen da.
- Erritmoa markatzen du.





PANDEROA

- Larruzkoa da.
- Normalean emakumeek jotzen zuten.
- Gehienetan beste soinu-tresna bat laguntzen du.

ALBOKA

- Bi adar ditu.
- Pandero-joleak lagundu egin ohi du.






DANBOLINA

- Txistuarekin batera jotzen da.
- Erritmoa markatzen du.

TXISTUA

- Izenak esaten duen bezala, “ziztu” egiten du.
- Danbolinarekin batera jotzen da.






DULTZAINA

- Bi eskuekin eta ahoarekin jotzen da.
- Zurezkoak eta metalezkoak dira.

DANBORRA

- Bi eskuekin jotzen da.
- Dultzainaria lagundu ohi du.






TXALAPARTA

- Zurezko ohola da, zurezko makilek jota.
- Bi lagunek batera jotzen dute.

TRONPA

- Ahoan jarri eta hatz batekin jotzen da.
- Metalezkoa da.






TXIRULA

TTUNTTUNA

- Esku bakarrarekin jotzen da.
- Ttunttunarekin batera jotzen da.

- Makilatxoak harien gainean jotzen du.
- Txirularekin batera jotzen da.





ESKUSOINUA

- Akordeoi txikia da.
- Panderoarekin jotzen denean, TRIKITIXA deitzen diogu.



3. Jantzi nazazu!

Ariketaren helburua:

- Euskal musika-tresna tradizionalen eta hauekin erlazionatutako jantzien inguruan azterketa egin (baserritarraren jantzia, txistularia, zamaltzaina eta Otsagabiako dantzaria).
- Otsagabiako dantzaria aitzakizat hartuta bere jantziaren atal ezberdinak aztertu eta txontxongiloa egin.

Ahozko ariketa, gaiari ekiteko galdera eta erantzun bidez ikasleekin batera egiten dena.

“Tradizioak bizirik dirau” aretoetan burutzen da. Irakasleak ikasleekin gaia aztertzeko jantzi bakoitzaren inguruan azalpena du. Ondoren, eskulan moduan eta Otsagabiako dantzaria abiapuntua izanik, txontxongiloa sortzeko aukera dago.

1. Baserritarraren jantzia

XX. mendeko 20 eta 30eko hamarkadetan, hau bezalako jantziak erabiltzen hasi ziren, erromeria eta jai herrikoietan dantza egiteko.

Lehengo baserritarren janzkeran oinarriturik badaude ere, berez kaletarren jantzi folklorikoak dira.




2. Txistularia



Donostiako Udal Bandako txistulariaren jantzia. Txistulariak beti bi tresna jotzen ditu batera: txistua bera eta danbolina.

Musika-tresna herrikoien artean, instituzionalizatu den bakarra da, aspalditik ekitaldi publikoetan agintariak lagundu ohi ditu eta.



3. Zuberoako Zamaltzain dantzaria

Zamaltzaina Zuberoako Maskarada edo inauterietako pertsonaia da. “Gorrien” taldekoa da; alegia, dotore jantzi eta lirain dantza egiten duten hainbat pertsoniarekin batera agertzen da, “Beltzak” (zikinak, zalapartariak...) ez bezala.

Maskaraden antolakuntza urtero aldatzen da herriz: herri bateko gazteek antolatu eta Zuberoako beste herrietan dantza egiten dute.


Txirula eta ttuntunaren soinupean dantzaten dute erreperitorio zabal bat.



4. Otsagabiako dantzaria

Otsagabiako dantzariak urtero dantza egiten dute Muskildako Amaren omenez, irailaren 8an. Zortzi dantzari dira, gehi “Bobo” deitutakoa, makilez, kriskitinez eta zapi zuriz hainbat dantza egiten dutenak.

Dultzaina eta danborraren erritmoan dantzaten dute. Duela ia ehun urteko argazkiak frogatzen duen aspaldiko ohitura honek gaur egun bizi-bizirik dirau, bai Otsagabian bertan, bai hainbat dantza-talderen erreperitorioetan ere.



Jantzi nazazu eta zure dantzaria asma ezazu!

Hemen duzu Otsagabiako dantzaria jantzeko elementuen ordena. Ikasleek beren kabuz jantzi beharko dute; ondoren, nahi badute, beraien txotxongiloa osatu ahal izango dute.



4. Baserritar giroa

Ariketaren helburua:

- Baserrira eraikinaren barne-egitura eta etxebizitzako espazio bakoitzaren funtzioa aztertu
- Baserritar giroko familiaren egituraren ezaugarriak ezagutu
- Baserriko abereen garrantzia eta funtzioa azpimarratu
- Baserritar inguruko aisialdirako tartekak agerian jarri, hala nola, musika eta kirolak.

Ahozko ariketa, gaiari ekiteko galdera eta erantzun bidez ikasleekin batera egiten dena.

“Tradizioak bizirik dirau” aretoetan burutzen da. Irakasleak ikasleekin jarduera egiteko azalpenak dauzka irakaslearen gidan eta “Tradizioak bizirik dirau” atalean argazki sorta ariketa bakoitza egiteko.

BASERRIA: ETXE BAT ETA ASKOZ GEHIAGO

Hona hemen baserritar baten maketa, hiru solairutan banatuta. Berririko behar bezala muntatzeko gauza zarete? Ikus dezakezue, solairu bakoitzak bere betekizuna dauka: **ukuilua, etxebizitza eta jakiak biltzeko ganbara.**

Teilatua jartzekotan, pentsatu gauza bat: zeren gainean egongo da tximinia?

- Beheko solairua: **ukuilua**
- Goiko solairua: **etxebizitza**
- Teilatupeko solairua: **jakiak biltzeko ganbara**
- Teilatua: **tximiniak sukaldearen gainean geratu behar du**

OHARRA: *jarduera hau egiteko taldeak material osagarria izango du.*

FAMILIA

Bila ezazu argazkien artean baserritar bat familia osoarekin: zenbat lagun dira guztira?

- 4
- 8
- 16 X (*aitona behi parearen aurrean eta amona eserita, bi umerekin; aita eskaileran eta ama zutik eskuarearekin; hiru izeba ezkongabe balkoietan, haietako bat, aitona-amonen belaunaldikoa; bederatzi seme-alaba, nerabeetatik urtebete ingurukoraino*)

Baserritar oso normala zen hiru belaunaldi batera bizitzea. Zurekin bizi al da aitona-amonarik, osaba-izebarik?



ETXEKOAK DIRA, BAINA EZ SENIDE

Baserrian abereak ezinbestekoak ziren. Bila itzazue argazkietan zerrenda honetako lau abere mota.

Zaldia	Ahatea
Txakurra	Ahuntza
Ardia	Zezena
Akerra	Zerria
Katua	Untxia
Olioa	Txita
Oilarra	Arratoia
Behia	Astoa
Idia	Sagua

OHARRA: Lanerako, behiak gehiago erabiltzen ziren idiak baino: indar gutxiago duten arren, haiei esker kumeak eta esnea ere lortzen ziren; azpiko argazkian, soroa aretzen ari direla, errapeak sumatzen zaizkie.

Argazkien adibideak:



Behia




Ardia



Astoa



Zerria



DENA EZ ZEN LANA

Musika:

Musikariak zenbait argazkitan ateratzen dira.

Batean, lau gizonek alboka jotzen dute. Zer jotzen du andreak?
Panderoa.



Kirola:

Euskal kirolak lanetatik datoz: belarra segatzea, harriak altxatzea harrobietan edo eraikuntzan, enborrak moztu eta sokaz arrastaka ateratzea...

Alabaina, euskal kirolik ezagunena joko hutsa da, ez du zerikusirik lanarekin.

Badakizu zein kirol den hori? Argazki batean aurkituko duzu.

Pista: honako honetan, zestak erabiltzen dituzte jokatzeko. **Pilota joko da.** Zesta-punta, erremonte eta beste joko batzuetan erabiltzen dira zestak.



Ariketaren helburua:

- Ondarea kontserbatzeko garrantziaz sentiberatasuna areagotzeko ariketak

Zergatik uzten dugu gauza batzuk ukitzen? Areago, batzuetan hartara gonbidatzen zaituztegu... Eta beste batzuetan, berriz, guztiz galarazten...

Bada, gauza batzuk, hautsi edo hondatuz gero, konpondu edo berriak erabil daitezkeelako. Beste gauza batzuk, ordea, behin betiko galduko lirateke, museoetan beste inon ez baitaude. Horrexegatik egon ohi dira bitrinetan, hobeto kontserbatzeko.

Izan ere, museo baten lanik handiena horixe da: gauzak kontserbatzea, zuen seme-alabek ere etorkizunean goza ditzaten, zu zeu oraintxe egiten ari zaren bezala.



5. Lanetik kirolera

Ariketaren helburua:

- Euskal herri kirolen jatorria eta baserriko lanekin duten erlazioa aztertu (egurgileak- aizkolariak, harginak - harri-jasotzaileak, itzainak - idi-probak eta zirgariak-sokatira)



Ahozko ariketa, gaiari ekiteko galdera eta erantzun bidez ikasleekin batera egiten dena.

“Tradizioak bizirik dirau” aretoetan burutzen da. Irakasleak ikasleekin jokatzeko bi era dauzka:

- 1. Irdia erakutsita, herri-kirolaren eta lanbidearen izena asma dezaten**
- 2. Herri kirola eta lanbide bakoitzari dagozkion bi pistak irakurrita, herri-kirolaren eta lanbidearen izena asma dezaten**

Ikusi adibide hauek eta datozen orrietako argazkiak erabiliz has zaitez jolasten!

EGURGILEAK




ZUHAITZAK BOTA
ETA ENBORREI
ADARRAK
KENTZEN
ZIZKIETEN.

AIZKOLARIAK



ENBORRAK
AHALIK ETA
AZKARREN
MOZTEN
SAIATZEN DIRA.

CC BY-NC-ND-3.0-ES 2012 / KUTXATEKA /
Marín fondoak / Argazkiaria: Pascual Marín





CC BY-NC-ND-3.0-ES 2012 / KUTXATEKA / Marín fondoa. / Argazkiaria: Pascual Marín

EGURGILEAK

AIZKOLARIAK

ZUHAITZAK BOTA
ETA ENBORREI
ADARRAK KENTZEN
ZIZKIETEN.

ENBORRAK AHALIK
ETA AZKARREN
MOZTEN SAIATZEN
DIRA.






HARGINAK

ERAIKUNTZETAN
HARRIAK SOINKA
ALTXATU ETA
GARRAIATU BEHAR
ZITUZTEN.

HARRI-JASOTZAILEAK

HARRIA, AHALIK
ETA PISUTSUENA,
LEPORAINO
ALTXATU BEHAR
DUTE.






(Eusko Ikaskuntzaren Argazki Artxiboa - Euskomedia Fundazioa)

ITZAINAK

IDI-PROBAK

IDI-PAREAK LURRA
LANTZEKO EDO
PISU HANDIAK
GARRAIATZEKO
ERABILTZEN
ZITUZTEN.

HARRI PISUTSUAK
ARRASKA AHALIK
ETA URRUTIEN
ERAMAN BEHAR
DIRA.



Cortesía del Diario Deia




CC BY-NC-ND-3.0-ES 2012 / KUTXATEKA / Marín fondoa / Argazkilaria: Pascual Marín

ZIRGARIAK

GIZONEK, ETA BATEZ
ERE EMAKUMEEK,
ITSASONTZIAK SOKA
BATEKIN ARRASTAKA
KAIRAINO
ERAMATEN
ZITUZTEN.

SOKATIRA

BI TALDEK TIRA
EGITEN DIOTE
SOKA BATI,
BAKOITZAK BERE
ALDERA.



Gida honetan azaltzen diren argazkiak San Telmo Museoko argazki bildumakoak dira. Haien inguruan argibide nahiago nahi izango bazenu, jar zaitez gurekin harremanetan: santelmo@donostia.org, 943 48 15 80.

Mila esker.

